

GAUEKO ARRETA-ZERBITZUA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Egoitza edo tutoretzapeko apartamentu batera sartu

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Laguntza behar duten adineko pertsonentzako arreta-zerbitzu bat da, gauez loa eta gaueko portaera kontrolatzeko gainbegiratze handia behar dutenentzat. Gainbegiratze hori ezin diete beren etxean eskaini beren ohiko zaintzaileek. Helburua familiei laguntzea da, gaueko orduetan arnasa hartuz. Gaueko zentro batean eman daiteke, edo gaueko arreta-zerbitzu gisa antola daiteke egoitza-zentro baten esparruan. Jarraipena baloratzeko prestazioak, arreta pertsonala, erizaintza-zerbitzua eta garraio egokitua barne hartzen ditu, beharrezkoa denean. Afari- eta gosari-zerbitzua ere izaten dute, baita garbiketa ere.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

65 urte edo gehiagoko pertsonak, mendekotasuna dutenak eta gauez intentsitate ertain edo handiko laguntza behar dutenak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 65 urte edo gehiago izatea.
- Mendekotasun-egoeran egotea.
- Gauez intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)